

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Garraio Partzuergoa**

«Barik txartela eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren garraio titulu erkideen erabilera arautzeko Ordenantza» ren aldaketaren hasierako onespeneren iragarkia.

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Kontseilu Nagusiak, 2025eko maiatzaren 14an egindako bileran, hasieran onetsi du «Barik txartela eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren garraio titulu erkideen erabilera arautzeko Ordenantza»-ren aldaketa. Espedientea jendaurrean jarri da, iragarki hori argitaratuz. Horrela, hogeita hamar (30) eguneko epean, iragarkia argitaratu den egunetik aurrera zenbatuta, interesdunek nahi dituzten erreklamazioak, zioen agerpenak edo iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte.

Jendaurrean azaltzeko epea amaitu ondoren, Kontseilu Nagusiak bidezko behin betiko akordioak hartuko ditu, aurkezturiko erreklamazio eta iradokizunak ebatziz. Bat ere aurkeztuko ez balitz, ordura arte behin behinekoa izandako akordioa, behin betiko onartutzat hartuko da.

Nolanahi ere, aurreko atalean adierazitako behin betiko akordioa, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, Ordenantzaren aldaketaren testu osoarekin batera.

Bilbon, 2025eko maiatzaren 14an. — Zuzendari Nagusia, Roberto Muñoz García